





ENPRESA



JARDUERA PROTOKOLOA
SASOIKO ETA NEKAZARITZAKO LANA EUSKADIN
COVID-19



1. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA NEKAZARITZAKO SASOIKO LANA ERABILTZEARI BURUZ




Enpresa eta ustiategi guztiek adierazi eta jakinarazi behar dizkiote datuak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari, **NEKAZARITZAKO SASOIKO LANA ERABILTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN** baten bitartez.


Datu hauek beharrezkoak dira:



Oraingo kontratazioa eta aurreikusten dena (egunak eta profesionalak)



Aurreikusitako ustiategiak eta jarduera lekuak



Prebentzio zerbitzua



Taldeak eta kuadrillak elkartzea zenbait enpresa eta ustiategitan



Ostatua

SASOIKO LANGILEAK OSTATATZEKO ERAIKINEN EDO EKIPAMENDUEN ERREGISTROA.

2. KONTINGENTZIA PLANA

Kontingentzia plana enpresak/ustiategiak landuko du, eta bere prebentzio taldearen lankidetzaz izan behar du, hainbat alderdi kontuan hartuta:

- PCR kontrolen planifikazioa lanean hasteko.
- Lantokien, postuen, prozesuen eta antolamenduaren azterketa eta ikuskapena, segurtasun distantziak mantendu eta higiene arauak bete ahal izateko.
- Jarduerak egingo dituzten langileen berezitasunen azterketa.
- Postu kritikoak identifikatzea eta erreserbako poltsa sortzea.
- Desplazamenduen eta lekualdaketen azterketa.
- Ostatuaren egoeraren azterketa.
- Arriskuarekiko esposizioa eta hedapen posibleak murrizteko neurriak ezartzea, jardueraren beraren zein inguruko jardueren esparruetan.
- Azpikontratazioen presentzia.
- COVIDaren aurreko informazio, prestakuntza eta orientazio beharrak.
- COVIDaren aurreko behar besteko stock eta baliabideak hornitu eta erabilgarri eduki.
- Neurriak mantentzea eta eguneratzea.
- Jarduera protokoloa kasu positibo edo susmagarri bat agertzen bada.




KONTINGENTZIA PLANA



JARDUERA ABIARAZTEA



3. KUADRILLAK ANTOLATZEA



Pertsonak kuadrillatan antolatuko dira eta ez dira nahastu behar. Kuadrillak behar bezala erregistratuko dira.




KONTRATATUTAKO LANGILEEN ZERRENDAREN ERREGISTROA mantendu behar da, **BAITA AZPIKONTRATATUENA ERE.**



Enpresa eta ustategietan batera elkartzen diren taldeak eta kuadrillak identifikatu.

4. DESPLAZAMENDUAK ETA LEKUALDAKETAK + IBILGAILUEN GARBIKETA



Lekualdaketak kuadrillaka egingo dira, nahastea saihestuz.
Agintariek garraiorako une bakoitzean ezarritako arauak bete beharko dira.



Erabilitako ibilgailuak maiz garbitu eta desinfektatuko dira, batez ere ukitu ohi diren barne- eta kanpo-gainazal guztiak.

KANPOKOAK:


Irekiguneak:
ateen markoak,
leihatilak eta kapota

Giltzak eta tiragailuak


Atzerako ispiluak

Erregaiaren estalkia

Balbulak



BARNEKOAK:



5. LANTOKIETAN ARAUDIA EZARTZEA


Lantoki desberdinetan (landa, upategia eta biltegiak) protokoloan ezarritako arau eta gomendio guztiak ezarri behar dira.



PROTOKOLOA

6. OSTATUETAN ARAUDIA EZARTZEA

- Bete portaera sozialeko arauak.
- Sarbidea kontrolatuta egongo da eta modu mailakatuan egingo da. Saihestu jende pilaketak.
- Lanera iristen zarenean:
 - o Garbitu eskuak ezer ukitu aurretik.
 - o Garbitu eta desinfektatu giltzak, mugikorra, betaurrekoak, etab.
- Ez partekatu ur eta edari botilak.
- Ez partekatu katilu, edontzi edo mahai tresnarik.
- Garbitu eskuak jan eta edan aurretik.
- Aireztatu sarri, gutxienez 10 minutu egunean 2-3 aldiz.
- Atera zaborra sarri, eta ondoren garbitu eskuak.
- Saihestu arropa astintzea eta garbitzeko erabili ur beroa.
- Covid-19aren kasu baieztatu edo susmagarri bat badago, jakinarazi eta bete etxean bakartzeko jarraibideak.
- Garrantzitsua da sarri erabiltzen diren gainazalak garbitzea eta desinfektatzea, hala nola ate eta leihoetako euskarri eta heldulekuak, eskutokiak, barandak, urruneko aginteak, etengailuak, sukaldeko tresnak, komunak, mahaiak, etxetresna elektrikoak, telefonoak, etab.



NOLA GARBITU GAINAZALAK?

Erabili ura, xaboia edo garbitzaile arrunt bat.

Sarri ukitzen diren gainazalak badira, eta komunetan, aurreko urratsa egin eta gero, desinfektatu honela:

Lixiba komertzialetatik abiatuta, honela prestatzea gomendatzen da:

- 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba 1 litro uretan.
- 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba 1 litro uretan.

*Adibide moduan, "zopa koilara bat" 15 ml-ren parekoa da.

Gainazal delikatueta %70-95 alkohola erabili daiteke.

Administrazioak aholkatutako desinfektatzaileak ere erabili daitezke.

DESINFECTATZAILEAK

- Garbitu sarri
- Erabili eskularruak eta garbitzeko arropa
- Bete etiketen jarraibideak eta ez nahastu produktuak
- Erabili zapi desberdinak desinfektatzeko
- Garbitu eta lehortu ondo garbitzeko materialak
- Amaitutakoan, garbitu eskuak beti.



7. POSITIBO ETA KONTAKTU ESTUEN KUDEAKETA


Sintomak edo kontaktu estuak badaude, jarri harremanetan arduradunarekin

Deitu berehala Osasun Kontseilura 900203050 telefonoa.




Bete bakartzeko jarraibideak.

Jakinarazi zein pertsonarekin egon zaren 15 minutu baino gehiago eta 1,5 metro baino gutxiagoko distantzian.



Kontaktu estuen jarraipena egin eta ikertu, kontroleko erregistroen bitartez (ostatatzea, karakterizatutako taldea, lekualdaketa eta garraioak, ustiategiak, etab.).



8. KANPAINARI IRISMEN HANDIAGOA EMATEKO ETA AHALIK ETA ESKURAGARRIENA IZAN DADIN, HEDAPEN-MATERIAL HAUEK PRESTATU DIRA:

PROTOKOLOA




BIDEOA YOUTUBE



INFORMAZIO LIBURUXKA EUS/GAZ



KARTELA EUS/GAZ



Gainera, informazio hori guztia (enpresei zuzendutakoa izan ezik) frantsesez, portugesez eta arabieraz dago eskuragarri deskarga daitezkeen bertsioetan (bideoak barne) **ESTEKA HONETAN**